

Jon Sarasuak eta Urko Kolomok astebete egin dute Bolivian, bertako gobernuak gonbidatuta

2008/10/21

Irailaren 28tik urriaren 6ra, Jon Sarasua Lanki Institutuaren izenean eta Urko Kolomo Garabide elkartearen ordezkari gisa, Bolivian izan ziren, bertako Hezkuntza Ministerioak gonbidatuta. Han ziren bitartean, jarraipena eman diote joan den ekainean hasitako lanari, eta bi lan ildo landu dituzte: **hizkuntza indigenen berreskuratze eta normaltzea**, Garabideren ardurapean, eta **kooperatibak eta herri ekonomia**, azken hau Lanki Institutuaren ardurapeko gaia.

Boliviako Hezkuntza Ministerioak aholkularitza teknikoa eskatu dio Garabide elkarteari, **Unibertsitate Indigenean** laguntzeko, azken hau hasi berria baita. Hiru fakultate izango ditu, eta euretako bakoitzean **ikasketak hiru hizkuntzatan** emango dira, kitxueraz, guaraniz eta aimaraz. Talde bat osatu da unibertsitatearen oinarriak ezartzeko, eta Garabidek talde horri emango dio aholkua. Horrekin batera, hango irakasleak prestatuko ditu, graduondo bat eman dezaten.

Kooperatibagintzari dagokionez, Jon Sarasuak Arrasateko kooperatiba esperientziaren gakoak azaldu zizkien Planifikazio eta Koordinazioko ministroordeari, horren departamenduko kideei eta beste talde bati, enpresa eragilez osatua. **Planifikazio eta Koordinazioko Ministerioak** interes handia erakutsi du Lanki Institutuarekiko lankidetzari jarraipena emateko, haiek ere gogoia baitute graduondoko bat sortzeko, gai horien inguruan.

Urrian bertan **Oruroko prefekturako kide bat** Euskal Herrira etorriko da, Lanki eta Mundukide erakundeetako jendearekin biltzeko.

